

Sotoaren munstroa deitzen zioten telebistan eta Ane bere abokatua zen. Berak ondo zekien oihartzun handiko kasua zela baina abokatuak ez dute ahalkerik. Eta putreak bezala lehiatzen dira euren bezeroen onurarako.

Epaiketak luze jo zuen eta, denbora horretan, Anek etsai ugari lortu zituen. Batzuk inbidiagatik, abokatuak, gehienak nazkagatik, kaleko jende arrunta. Nola defendatu zezakeen horrelako tipo bat? Berak ere bere zalantzak zituen, baina ospea nahi zuenez, munstroa defendatzen jarraitu zuen.

Baina proba ugari zegoen tipo horren kontra, eta munduko abokaturik onenak ere ezin zuen askorik egin espetxetik libratzeko, edo zigorra gutxitzeko. Eta horrela gertatu zen. Epaileak bizi guztirako kartzela zigorra ezarri zion eta Anek, abokatu gisa, bizitzako momenturik gaziarena bizi zuen.

Une horretan hasi zen Aneren gainbehera. Eta Martin ohartu zenerako, beranduegi zen. Trikimailuetara ohituta zegoen Ane eta ez zitzaion oso zail egin senarrari gezurrak esatea. Jakina, gezurrekin Martin ez arduratzea nahi zuen baina hobe gertatzen zitzaiona kontatu izan balio.

Estima minduta zuen Anek. Kasurik inportanteenean huts egin zuen eta bere abokatuen langelara gutxik jotzen zuten. Kasu ugari izatetik bakan batzuk izatera pasatu zen eta dirurik ezean, erabakiak hartu behar izan zituen.

12 abokatuetatik bost kaleratu zituen lehenengo eta zazpi horietatik ere beste batzuk kaleratu behar izan zituen handik hilabete batzuetara. Azkenean bere eskuineko eskua zenarekin gelditu zen, unibertsitateko ikaskide batekin, eta bulegoa ere handi gelditu zitzaien biei.

Alokairua garestiegia zen, are gehiago dirurik sartzen ez zenean. Eta iritsi zen azkenean, bai, erabakirik latzena hartu beharreko eguna: bulegoa itxi.

Saiatu zen bere kabuz lan egitera baina munstroaren kasuan asmatu ez izanak kalte izugarria egiten zion. Inork ez zuen bere taldean galtzaile bat nahi.

Pixkanaka, ohartuz joan zen Ane eta bere egoera oso larria zen. Etxean ez zen dirurik sartzen eta hipotekak ez zuen hilabete bakar batean ere hutsik egiten. Martinek bazekien bere emateak arazoak zituela lanean baina ez zen koiziente